

ELGOIBARKO ASTEKARIA - 2001eko irailaren 28a/IX. urtea/377. zkia

# BARRO



*Tristurak ez du biolinez jotzen, galdu en ditu partitak hartutako zure gorputzaren*  
*desioen kumplimendua.*  
*Sutan erre zenuen gorputza*

MAITE URIARTEK "SUA SUTAN" LANAREKIN URRUZUNO SARIA IRABAZI DU

**"Ez dakitx zeri buruzko poesia dan, bakoitzak nahi dabana ulertuko dau"**

"HITZA, BIHOTZAREN GILTZA" (esaera zaharra)



# BASKO REN

GARBIKETA • MANTENIMENDUA  
AUTOEN ALOKAIKUA  
Signiako industrialdea eta 8. pabiloiak

**MANTENIMENDU E ZAZU  
ZURE AUTOA  
GARBI ETA PRESTI**

Txanna eskatzeko deitu  
**902103 282** telefonoraz

**TAILERRA**

**GARBIKETA  
400pta.**

**GARBIKETA  
AUTOMATIKO PUBLIKOA**



**MANTENIMENDU OROKORRA ORO, BALAZTA  
eta PNEUMATIKOEN ALDAKETA  
BARRUKO GARBIKETA INTEGRALA**

**GARBIKETA  
BEREZIA  
700Pta.**

**GARBIKETA  
LEHORKETA  
ARGIZARIA EMATE  
500p.**

**SIGMAKO  
INDUSTRIALDEAN  
GAUDE**

# SAN MIGEL JAIA

**Belauste9i  
Baserna**



**JATETXEA**

Agoteil epe ofre tazoko ialetam  
go autzea uittatem, 141141steew bizueos  
**100114** 10144104b4:

San Migel Gaina z/g - Tel. 943 74 31 02

*Aperitiboa*

*Solomoa eta txorizo iberikoak  
Bolobana hojaldrearekin eta honddoekin*

*Otarrainskak plan txan  
\*\*\**

*Legatza txirlekin edo  
Entrekota goarnizioarekin  
\**

*Hojaldrea etxeko izozkiarekin  
\*\*\**

*Kafea  
4.000 pta. + nua (edariak aparte)*





### Prensa arrosaren azpijokoa

Lotsagarria da prentsa arrosaren mundua. Iruzurrez beterik dago, eta jendeak ematen dioten guztia irensten du. Astero-astero eskusibaz eta montajez beteriko hamaika aldizkari arrosa kaleratzen dira, eta honekin batera, telebistan audientzia handiena daukaten programak kotileoaren ingurukoak dira. Jendeak morboa nahi du, argi dago, baina norberak begi aurrean filtro bat jarri beharko luke, dena ez sinesteko. Gero eta gehiago dira, famatuena kontura sasifamatu bihurtu direnak. Besteen kontura bizitzeko erraztasuna daukate, montajeak eginez eta eskusibak salduz. Ez naiz izenak ematen hasiko, ez bainuke sekula amaituko, baina prentsa arrosaren mundua ustelduta

dagoela argi daukat. "La gran mentira del coraz6n" izeneko programaz ari naiz. Pasa den astean izan genuen ikusgai, eta ikaragarria izan zen. Pertsonaia sasifamatu hauei ez diete ezer sinetsiko, baina dagoeneko poltsikoa ondo bete dute. Hala ere, okerragoa iruditzen zait kazetarien jarrera. Informazio bat kaleratu aurretik kontrastatu egin behar da, ezin da susmo bat kaleratu. Kazetari profesional batek egiaren aldeko apustua egin behar du beti, eta prentsa arrosaren kasuan, egitatearen kode deontologikoa ez da inon betetzen. Mundua hankaz gora jarri zaigu. Azken erabakia norberak dauka beti, baina ondo aukeratuz gero, gauzak aldatu daitezke.

Ainhoa Andonegi



### joan eta etorriko tren

Oporrak eta San Bartolome jaiak heltzeko irrikitan geunden, baina etorri eta joan egin dira. Orain, gehienak, bizitza normalera bueltatu dira.

Azken finean bizitza errobera bat bezalakoa da, ziklo bat duena. Orain neguko oporrak eta jaiak itxaroten egongo gara, edo beste gauzaren bat, baina bitartean eguneroko bizitzak duen erritmoa jarraitu behar dugu. Baina lasai, pazientziatz, dena heltzen baita eta joan ere egiten da.

Bizitza ziklikoa dela esaten dudanean, zera esan nahi dut: urtetik urtera bizitza joan eta etorri bateko tren batean bihurtzen dela, geltoki berdinetatik behin eta berriro pasatzen dena. Ordutegia, orokorrean, berdina izaten da eta batzuetan bidaia luzeagoak edo motzagoak izaten dira, baina azkenean denak heldu eta joan egiten dira.

Beraz, nahiz eta ziklo baten barruan egon, joan-etorriko bidaia hori alai eta zoriontsu igaro behar dugu, biletea bakarra baita.

Gainera, bizitzaren errobera honen irudia Indiako banderan aurki dezakegu.

Jokin Martinez

(S)  
CD

O

O

Kexak .....	
motz motz .....	
gehi(Yarria .....	13
kiROIak .....	21
aGenda .....	24

## ASTE KARIA

# BaRRen

Nafarroa enparartza, 2  
20870 ELGOZBAR  
943 74 41 12  
Publizitatea:  
943 74 37 04  
Faxa: 943 74 37 04  
E.maila:  
[barren@topaqunea.com](mailto:barren@topaqunea.com)  
blebide informatikoa:  
werer.topaqunea.comibarron  
Asonsxraltra  
Eloolbarko Izarra

LaeurtAxa ElgoIloarko Udala ZUZENDARIA Eli  
Aizpuru KAZZTAPIAK I ra Agirreazaldegt,Asier  
Orbea PueoorreA Andoitz Agirregomezkorta  
MstreArrouLex Bea Ansola AWSINISTRAIZIOA Arnaia  
Rodrigez GERE1171AAInhoa lodoso, Nestor  
Euentes, Peno Mendizabal, Juan M. Elustondo,  
Alberra Ansuategi, Edurne Bilbao. Gatzon Arrieta,  
Jori Puli Uriguen. KCILAtenATZATLeKk, Lorea  
Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Olga Unzilla,  
Montse Arregi, Juanilo Gorostiza, Jon  
Gumstra9a. Jon Eugh Ainhua Andonegi, Kokoe  
eta Urruzuno L.T. AZALEIKO ESAERA ZAHAFIRA  
Gotzon Garateren ribunnik INPRIMATZGIA Genu  
Koop. E. TAIDA 4.000 ale LEGE CAFIDALLIJA  
95-1.032192 ISSN 1139-1355

EIQG[BARKOIZARRA

Elgoitarko Udalak, Eusko Jaurlarazako Kultura Sailak  
eta Font Aldantliak dituz lagundutako aldizkaria.



zei kutxa  
ssrn esker

1DANOBAT / 03 01 T 1 (B' ESTARTA  
GRUPO DAN0116T

## Urruzunoren begi ezkutua



Berea gustatzen ez zitzaiolako erabaki zuen bizitza berri bat asmatzea, Horregatik, tatuajeak egiten ikasi zuen. Eta egunero hitz bat idazten zuen besoan. Eta hitzaren ondoan marrazkia egiten zuen. Hamaika

urte eta berrehun egun pasa zirenean, ez zitzaion zirrikiturik geratzen gorputzean. Azath kutsatua zeukan, tintatua. Baina, halere, ez zitzaion bere bizitza gustatzen. Horregatik, besteen gorputza hasi zen tatuatzen. Eta haien azalean orratzaz hirugarren bizitza bat erretzen zuen.

Ehun beso eta hamahiru gerri kalkamoniatu zituenean konturatu zen kontatzeko ezer ez zuela. Ez zuelako ezer bizi izan. Eta bizirik izan arren, bizigabeko segundoak eta orduak ez direla existitzen.

Bizitza erdia eman zuen bizitza berreraikitzen. Beste erdia herridatzitakoa ezabatzen. Bizi izan gabe gabe hil zen.

Jasone Osoro

**Cordon, Vilarchao, c.b.  
IDEKORAXIC)".**

MOKETAK, KORTXO 13ARN1ZATUA, PVC ETA PARETAK,  
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKAIKAIK,  
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behea. Tel: 943 74 28 74-74 05 70



**URKI DI** AHOLKULARITZA

**KONTABILITATE  
LAN  
FISKAL**

Kalamua, 12 • ELGOIBAR  
Tel-Faxa: 943 74 18 91

**HARTFORD**  
ASEGURUAK



r SILD111111

• Pasa den asteke BARRENen umeak Plaza Handian futbolearen ibiltzen direla eta haloiak jotzeko arriskuagatik kexatu zen emakume bat. Ondorioz, gaztetxo koadrila bat etorri zaigu erredakziora eta honakoa esan digute: **"Badakigu plaza ez dela leku aproposa, baina Mintxeta oso urruti dago eta herriko erdigunetik gertu futbolearen jolasteko lekurik ez daukagu. Ezin al da futbolerako leku bat ipini?"**

• **Udalaren atzeko aldean**, Usuaneko parkean, **loreontzi handi** batzuk ipini zituzten San Bartolomeetarako. Herritar batek loreak horrela jarraitu behar al duten edota lurrian landatu behar al dituzten jakin nahi du.

Guk Udalera jo dugu eta honi buruzko argibidea eskatu ondoren, "Udalak **honi buruz ez** duela ezer esateko" erantzun digute.

 KEXAK



• Emakume bat etorri zaigu BARRENera errekan zikinkeria asko dagoela esatera: "Astero-astero **Santa Klara aldetik datorren errekatxotik** "taladrina" edo **sustantzia txuri bat jausten da Deba ibaira**. Hori galaruteko zerbait egin beharko litzateke. Gutxienez, zikinkeria hori nork botatzen duen jakin beharko litzatekeela uste dut, eta zerbait egin gehiago ez botatzeko".

alkate b ntz

Eigolbarren bada zer ñobetua!



**E**skailara mekanikoak jartzeko plana idea polita dela iruditzen zait. Garestia izan arren. Eibarren uste dut kolokazioa dean egin zutela eta mantenimenduaz Udala arduratzen dela. Beraz, horrelako zerbait egiten saiatuko nintzateke. Bestaide, aparkalekuen arazoa konpontzeke aludeginak ere egingo nituzke. Hiru edo lau solairuko lur azpiko parkingen hat ez legoke gaizki. Soraluzen, adibidez, amerikar erako aparkaleku bat egiteko proiektua dago, solairu askotako edifizie bat 2iutoak aparkatzeko hakarrik erabilike dute. Hemen ere tailer zahar asko dago eta horiek hotata egin daitezke. Aukera bat Jarveko lantegi zaharrean. orain Gaztetxea dagoen lekuan, egitea izango litzateke, gainera herriko erdigunean dago.

**JOSE LUIS BADIOLA**  
Garraiolaria



# INAZIO BEREZIARE:A MUS:

**Inazio Bereziartua Musika Eskolak 1984.**  
**n hasi zuen bere ibilbidea.**  
**300 ikasle eta 6 irakasle hasi ziren Plaza Txikian hutsik zeuden lokal batzuetan. 17 urte beranduago, ia 500 ikasle eta 25 irakasle hasi dute kurtsoa rinazio Bereziartua Musika Eskola' izeneko eraikin berrian, oraingoan ere Plaza Brildan. Urte hauetan guztietan aldaketa asko izan ditu Musika Eskolak, baina ez bakarrik ifisikoak, musika imkasteko moduak ere asko aldatu baitira.**

## 17 URTEKO HISTORIA

1984ko maiatzean guraso batzordea eratu zen. Handik atera ziren Musika Eskolako lehen juntako kideak: Felix Lodoso, Marivi Agirregomezkorta, Jose Luisa Huergo, Cecilia Urain, Ines Unzilla,

Flori Ruiz, Maribel Elkoroberezibar, Mari Jose Zubiaurre eta Manolo Santos.

Mari Jose Zubiaurrek, gaur egungo administrariak, azaldu digu garai hartako egoeraren berri, "Felix Lodoso musika munduan sartuta egon da bizitza osoan eta bera izan zen lehen bilera konbokatuta

zuen. Elgoibarren musika eskola sortzeko baldintzak betetzen zirela ikusi zuen. Gutxienez 200 ikasle eta tituludun 6 irakasle behar ziren". Herriko ikastetxeetan inkesta bat egin zuten eta emaitzak ezin hobekak zirela ikusirik, aurrera egin zuten. Aurrez, udal ordezkariak kontsulta egin zieten eta Plaza Txikian hutsik zeuden lokal batzutan hasi

zituzten klaseak irailean. "Esteban Elizondo Donostiako kontserbatorioko irakasle eta organistak asko lagundu zigun, batez ere, irakasleen kontratazioan", gogoratzen du Mari Josek.

## Plaza Txikian hutsik zeuden lokaletan hasi zituzten klaseak 84ko irailean

Baliabide eta instrumentu gutxi eta eskasekin hasi zituzten klaseak, "partikularren bitartez eta Diputazioaren laguntzarekin lortu genituen lehen instrumentuak. Lehenengoa piano bat izan zen. Garai hartan instrumentu bat ikasi nahi zuenak erosi egin behar zuten. Gaur egun, zorionez, beste aukera batzuk daude".

Musika Eskola sortu aurretik musika irakasteko bi modu zeuden Elgoibarren. "Batetik, irakasle partikularrekin.

## ETORKIZUNARI BEGIRADA

**M**usika irakasteko moduak asko aldatu dira azken urteotan. "Musika klasikoaz gain, jazz-a edo rock-a moduko estilo modemoagoak irakasten dira. Lehengo solfeo enpaketatua atzean laga dugu. Bestalde, lehen ikasleek ez zuten instrumenturik ikutzen 10 urtera arte. Orain 7 urterekin instrumentu guztiak probatzen dituzte kurtsoan zehar".

17 urteko lanak bere fruituak eman ditu eta hainbat musikari eta irakasle

**Herri mailan musikarekiko zaletasuna mantendu eta areagotzea da helburua**

atera dira Musika Eskolatik. Andoni Mujika eta Gustavo Barrenetxea munduko orkestran jotzera iritsi dira. Silvia Hernandez, Gorka Mujika, Aintzane Larreategi, Gorka Regil eta ikasleak izandako beste batzuk musika irakasle lanetan ari dira gaur egun. Dena den, Mari Josek argitu digunez musika eskola baten izateko arazoia ez da musikariak ateratzea bakarrik, "musikari ospetsuak ateratzen badira hobeto. Gure helburua, ordea, herri mailan musikarekiko zaletasuna



mantentzea eta areagotzea izan behar da, Elgoibarren betidanik egon baita musikarekiko zaletasuna. Herriko biztanleen %5 dago Musika Eskolan apuntatuta. Musika Eskolen Elkartetik aipatzen dutenez, %2,5 eta %3 bitartean dago kopuru normala".

# KA. ESKOLA



Argazkiak Musika Eskolako lehen funta osatu zuten kideak.

Bestetik, berriz, Musika Bandako partaideek ematen zituzten klaseak jasoz. Hauek beraien lanak zituzten, ordea, eta klaseak oso mugatuak ziren. Gainera, bandaren kantera edo beharrak asetzeko klaseak izaten ziren. Adibidez, bandak tronpetak behar bazituen, huraxe irakasten zen. Horregatik ikusi genuen herritarrok musika eskola bat sortzeko beharra".


Hasierako urteetan Donostiako kontserbatorioari atxikitako zentrua izan zen. Ondorioz, ofizialtasuna lortzeko gradu hukaerako azterketak zentruan egin behar ziren, tasa batzuk ordainduz. 1991. urtean ikasle

**"Garai hartan instrumentu bat julzen ikasi nahi zuenak, erosi egin hehar zuen"**

**MARI JOSE RIBIAURRE**  
Musika Eskolaka Administraria

kopuruak gora egin zuenez (610 ikasle) Oinarrizko Gradua hartu zuen ikastetxeak eta urtebete beranduago, Gradu Ertaina. "Donostiarekin geneukan dependentsia galduta genuen eta azterketak hemen egiten hasi ginen", azaldu digu Mari Jose Zubiaurrek.

1993tik aurrera eta LOGSE indarrean sartzean, musika eskola bihurtzen. Lehen musika eskolak ez ziren existitzen, guztiak kontserbatorioak baziren. Dena den, ez du Gradu Ertaineko kontserbatorioa izatera galduta datorren urtera arte, 1966ko ikasketak plana guztiz desagertuko den



**Jtior izan zen  
9)V11290 6E1eugingerviA?**



Inazio Bereziartua (1883-1958)  
organoa jotzen.

*Elgotbarko Musika Eskolak 9mazio eereziartua musikariaren izena ciararnala jakin baclakigu baina, nor izan zen gizon hau?*

1883. urtean ictio zen eerasainen. Oso gazterik hasi zituen musika ikasketak. Lenen irakasleak Rodriguez eta Mocoroa musikad ezagunak izan zituen. Donostiako 74rte Ecierretan egin zituen musika ikasketak beka bati esker. eencloya, 7auregi eta Carrocha moduko irakasteak izan zituen eta nota bikainak atera zituen.

1902. urtean Elgoibarko parrokiako organista eta Uclal Musika eanclako zuzendari postuak eskuratu zituen oposizio bidez. Musika eanda berriro antolatuta eta akaaernia sortu zuen. lagun-Onak"orfeolaren sortzaka izan zen.

Konpositore inspiratua izan zen eta baita organu jole aparta ere. 9nprobisatzeko berebiziko gaitasuna eta erraztasuna zituen. Hainbat konposizio idatzituen, bai elizarako eta baita Uclal eandarako ere. Txisturako konposizioak ere idatzi zituen eta batzuk sarituak izan ziren. Igaibidez, "eurrunzailea" izeneko piezak Eibarren lehen postua eskuratu zuen.

1958. urteko martxoaren 7an Yrri zen agoibarren.



arte, alegia. Mari Josereti esanetan, musika eskolek kantserbat2iriae bano askatasun gehiago dute. "Klaseak berdin ernaten dira, baina musika eskolak herriaren errealitateari lotuago daude. Kontserbatorioetan ezin zen programa ofizialetik atera. Guk, berriz, euskal dantza sartu genuen programan tradizio handia baitago Elgoibarren, "Haritz"-i esker. Jaurlaritzan ere interesd dute herriko tradizioak berreskuratzeko eta mantentzeko, otxoteak eta antzerakoak galtzen ari zirela ikusi baitzuten".

## ERAIKIN BERRIARE11 ABANTAILAK

Inazio Bereziartua Musika Eskola eraikin berria pasa den irailaren 5ean inauguratu zen. Izan zen une berezirik, Mikel Azpiazuk inaugurazio ekitaldia aprobetxatu baitzuen Inazio Bereziartuak idatzitako partitura orijinalak musika eskolari



**Bereziartua musikariaren partitura orijinalak daude Musika Eskolan irailaren 5etik, inaugurazio egunetik.**

emateko. Mikelen aita, Ixaka Azpiazu, Bereziartuaren lagunmina izan zen. Musika Eskolakoek asko eskertu zituzten partitura hauek, ordura arte ez baizeukaten Inazio Bereziartuaren ezer.

Elgoibarko musika tradizioa bizirik mantentzeko Inazio Bereziartua Musika Eskolaren eraikin berriak berebiziko

## "Eraikin berriapen abantaila nagusia zentralizazioa izango da, orain arte 8 lekutan banatuta baixeunden"

MARI JOSE ZUBIAURRE. Musika Eskolako AdMinfstmrila



**AUD1TORIOA**



**DANTZA GELA**

garrantzia izango du, "Abantaila'napusin zentralizazioa izango da, orain arte 3 lekutan banatuta baixeunden, Plaza Txikian, Merkatu Plazan eta baita Kiroldegian Jrc. Akustika aldetik aurrerapen handia ekarri du eraikin berriak, eta baita bilerak eta antzerakoak egiteko ere. Lhen ez •genuen horretarako gelarik, ezta komun propiorik ere, puhlikoak zirenak erabiltzen genituen".



## ERAIKIN BERRIA DATUTAN

**IZENA:** Inazio Bereziartua Musika Eskola

**IKASLE KOPURUA:** 500 ikasle

**IRAKASLE KOPURUA:** 25 irakasle

**GELA KOPURUA:** 23 gela

**METRO KARRATIAK:** 1.200 m<sup>2</sup>

**KOSTUA:** 227 milioi pezeta

**SOLAIRUAK:** 4


Beheko solairua: 5 ikasgela

1. solairua: 7 ikasgela eta fonoteka

2. solairua: 6 ikasgela eta entsaio gela

3. solairua: 4 ikasgela eta audflorioa

4. solairua: dantzarako gela





Hizkuntza Gutsituen Aldeko Egunean, urtero 10 hizkuntza galtzen direla esan zuten hizkuntzalariek.  
**IKUSTEN 1111. DUZII, 111311BAIT, EUSKARA GALTZEKO ARRISKURIK?**



**PILAR MONTERO**  
 30 urte, etxekoandrea

Ez, orain dela urte batzuk galduko zen itxura zeukan, baina orain asentatzen ari da. Umeak txikitatik ari dira euskara ikasten, eta atzetik datozen generazioetan dago hizkuntza mantentzeko funtsa.

**MANU SANCHEZ**  
 41 urte, inlotoa

Ez, ez dut uste. Euskal gizartea aurreratuta dago arlo horretan. Desagertzen ari diren hizkuntza gehienak, berriz, basoan galdutako triburen batekoak dira. Ni euskarari eusteko euskaltegian ikasten hasi naiz.




**PERFECTO CID**  
 55 urte, kamareroa

Ez. Ni orain dela 40 urte etorri nintzen eta ordutik hona euskararen erabilera hirukoiztu ere egin dela esango nuke. Galiziakoa naiz, eta han gaztelania gehiago entzuten da kalean gailegoa baino.

**JESUS MARI AZPIAZU**  
 47 urte, montadorea

Momentuan ez dot uste. Sasoi baten txartuao eon zan euskeria, kalian ez zan inor entzuten euskeraz berbetan. Oin gazte jendiak eitxen dau eta horrek soka bat daka atzetikan.



**MARIA DOLORES TORRES**  
 30 urte, ikaslea

Ezta pentsatu ere, alderantziz, indartzen ari dela esango nuke. Nire alabak esaterako, dena euskaraz egiten du eskolan, eta txikienek ikasiz gero, ez dut uste galduko denik.

**JOSEFA MEDEL**  
 54 urte, etxekoandrea

Ez da galduko. Nik ez dakit euskaraz hitz egiten, baina nire familiakoek ongi egiten dute. Bilobak zertxobait erakusten dit, baina orain euskara ikasten hastea alferrikakoa litzateke, ez nuke ikasiko-eta.



IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.  
 Z1KLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!  
 IZENA EMATEAN 1/oi Oeko BEHERAPENA

94/44 Cripl aid

te««%444

16 wettelio.

ale



ARRAÑAGA

AUT OESKOL

Tel: 943 74 113 11 I

## Larunbat gauetan autobus zerbitzua egongo da Eibar eta Ondarru bitartean

Diputazioak gazteen auto istripuak gutxitzea lortu nahi du inizatiba honekin

riaren 6tik aurrera, larunbat gauetan, autobus zerbitzuak egongo dira Gipuzkoako hainbat zonaldeetan. Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jarritako plana da honako hau. Garraio eta Errepide Saitetik bidalitako prentsa ohar baten bidez plana martxan jartzeko arrazoiak azaldu dizkigute: "Gazteen ohiturak aldatu egin dira eta larunbat gauak ondo pasatzeko aprobetxatzen dituzte.

Batetik bestera gehiago ibiltzen dira. Horrek, tamalez, zirkulazio istripu gehiago dakartza. Ibilgailu pribatua gutxiago erabil dezaten, gaueko zerbitzuak eskaintzen dira gazteek joan-etorriak seguruago eta erosoago egiteko", dio idatziak. Diputazioko

### EIBAR - ONDARROA

Eibar	00.30	02.30	04.30	06.30
Elgoibar	00.40	02.40	04.40	06.40
Deba	00.50	02.50	04.50	06.60
Mutriku	00.55	02.55	04.55	06.55
Ondarroa	01.05	03.05	05.05	07.05

### ONDARROA - EIBAR

Ondarroa	23.30	01.30	03.30	05.30
Mutriku	23.40	01.40	03.40	05.40
Deba	23.45	01.45	03.45	05.45
Elgoibar	23.55	01.55	03.55	05.55
Eibar	00.05	02.05	04.05	06.05

Garraio eta Errepide Sailak jarritako zerbitzu hauek 13 ibilbide beteko dituzte guztira. Gehienek Donostia izango dute helmuga, baina bada Elgoibartik pasatzen den linearik, Eibar eta Ondarru arteko bidea egingo duena, hain zuzen ere.

### Ordutegiak eta tarifak

Gaueko 00:40an hasi eta bi ordutik behin geratuko dira autobusak ohiko geltokietan. Azkena 6:40koa izango da. Ondarrutik Elgoibarrera, berriz, lehena 23:30ean aterako da eta 5:30ean azkena. Elgoibartik Ondarrura arteko bidaiak 280 pezetako kostua izango du, Saturraranera joan nahi dutenek 250 pezeta ordainduko dituzte eta Mutriku jaisten direnek, berriz, 215 pezeta. Oraingoan, 5 hilabeteko iraupena izango du planak eta gazteek zerbitzu hau erabiltzen dutela ikusiz gero, aurrera jarraituko duela uste dute Pesa autobus konpainiako arduradunek.

Zerbitzu defizitarioak direnez, Garraio eta Errepide Sailak finantzatzeko dituen autobus eta gau bakoitzeko 69.550 pezetako dirulaguntza emanez.

## Kilometroak 2001 jaira joateko autobusak antolatu ditu Elgoibarko Izarrak

Datorren urriaren 7an Beasainen izango den Kilometroak 2001 ikastolen aldeko jaira joateko autobusak antolatu ditu Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek Elgoibarko Udalaren eta Foru Aldundiaren laguntzaz. Autobusez joateko izena eman nahi dutenek 943 74 16 26 telefonora dei dezakete edo Ubitarte 4an elkarteak duen lokalera joanda eman dezakete izena. Elkarteko bazkideek 900 pezeta ordaindu beharko dituzte. Gainontzekoek, berriz, 1.100 pezeta.

## Debegesak herritarren bizi kalitatea hobetzeko plana jarri du martxan Debabarrenean

uropan 1.200 herritan **ED**gin duten bezala, debabarrenean ere ingurugiro planetarako "Agenda 21" tresna estrategikoa jarri du martxan Debegesak. Egungo belaunaldien beharrak a.setuz eta etorkizuneko kalterik eragin gabe, garapenerako bidea zabaltzea da "Tokiko Agenda 21" delakoaren helburu nagusia. Planaren lehen fasea 2002ra artekoa izango da. Eskualdeko herrietan ingurugiro politikak egitea eta herritarren bizi kalitatea hobetzea da asmoa. Programa bailaran ahalik eta gehien zabaltzeko hainbat jardura egingo dira. Besteak beste, urriaren 19tik 26ra bitartean egingo duten Eko-Astea. Egitasmoaren baitan Debabarreneko herrietan hitzaldiak, erakusketak, zine emanaldiak, argazki lehiaketa



"Tokiko Agenda 21" planaren aurkezpena Eibarren.

eta umeentzako jaialdia, egingo dituzte. Elgoibarren urriaren 26an pelikula, energia eta ingurugiroari buruzko hitzaldia eta erakusketa izango dira. Hilero programari buruzko irratia ere egingo dute. Herri bakoitzeko egoera aztertu eta lanerako estrategia egin ondoren, ingurugiro ekintza planak zehaztuko dira herritarren partaidetzaren bidez.





## Herriko 23 komertziok hartu zuten parte Txankakua Merkatarien Elkarteak antolatutako ferian

Eguraldia lagun izan ez bazuten ere, joan den larunbatean, hilaren 22an, Txankakua Merkataria eta Zerbitzu Elkarteko 23 merkatarik hartu zuten parte Plaza Handiko ferian. Produktuak eta zerbitzuak erakutsi zituzten merkatariek eta bertaratu zirenek gauzak ikusteko zein erosteko aukera izan zuten. Bestalde, umeentzako gaztelu puzgarriak, eskulan tailerrak eta txu-txu trenak ere izan ziren. Jendea eguraldi euritsuari aurre egin eta Plaza Handira gerturatzerantz animatu zuen beste arrazoietako bat 10.000 pezetako 5 sariren zozketa izan zen. Argazkian Txankakua maskotekin batera agertzen direnak zozketako sarituak dira. Txankakua eskerrak eman nahi dizkiete herritarrei; izan ere, herria animatzeko gauza berri bat egitea zen beraien asmoa eta elgoibartarren laguntzaz helburua lortu dutela esan digute.



## Erromako 5 irakasle Elgoiharko institutuan izan dira hezkuntza sistema aztertzen

"Leonardo" nazioarteko programaren baitan, irakasleen arteko elkartrukea egin dute Elgoibarko Institutuak eta Erromako hainbat ikastetxe. Erretratuan, Elgoibarko 3 irakaslerekin, Erromako zuzendari bat eta 5 irakasle agertzen dira. Elgoibarko irakasleek ere egin zuten martxoan Erromara bisita eta azaroan beste 3 joatekoak dira. Programaren helburua irakaskuntza sistema aztertzea da. Besteak beste, kalitatea, enpresetako praktikak, irakaskuntza ez arautua eta sistemaren egitura eta ebaluaketa landuko dituzte, beraien eskoletako sistemekin konparatuz.

## Ion Garate elgoibartarra epaituko dute datorren urriaren 4an

Datorren urriaren 4an, eguerdiko I 2:30ean, Donostiako Probintzia Auzitegian epaituko dute Ion Garate Guenaga gazte elgoibartarra. 1999ko abenduan Eibarko Isasi kalean euskal presoak Euskal Herriratzearen aldeko protesta ekintza bat eginez, solidarioak kateatu egin ziren eta tartean baita Ion Garate ere. Ertzainek indarrez kateak apurtu zizkietela esan digu akusatuak, eta Madrigo gobernuaren jarrera gogorra salatu nahi dutela ere gaineratu du. 2 urte, 4 hilabete eta egun bateko zigorra eskatu dute Ion Garaterentzat ekintza honetan parte hartzeagatik. Herriko gazte honekin bat egin eta elkartasuna adierazi nahi dioten elgoibartarrei epaitegira joateko gonbitea luzatzen die solidarioek.



**INTURAK**  
PEDRO PEREZ BERISTAIN  
Xixilion, 2• 3.sotoa Tr 943 74 36 52 - 74 27 89  
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

1111 11(11)q  
Zulagailu sakonak Sq  
Mobila: 009 920 508 - 20870111.001BAR

## AZPELETA elektrizitatea



Jose Luis Azpeleta  
Familara hilko

### Noiztik ari zara elektrizista lanetan?

16 urte nituela hasi nintzen lan honetan. Gurasoengandik jasotako lanbidea da nirea, eta oraindik elektrizista moduan dihardut.

### Pertsona elektrikoa al zara?

Bai, oso elektrikoa. Elektrizantea izatera ere iritsi naiteke.

### Gizarte honetan funtzionatzen al dute "entxufe"-ek?

Bai, entxufe txikiak egiten dira. Bestelakoak, berriz, egunero jartzen ditugu. Beraz, funtzionatzen dutela pentsatu beharko dugu.

### Kortozirkuitorik izan al duzu inoiz?

Bai, bat baino gehiago. Behin begiak erre nituen, beste baten eskua eta eskailaratik ere jausi naiz kortozirkuitoak direla-eta.

### Gogoan al duzu "txispatu" zinen azken aldia?

Txiki Eguna, urteroko zita da.

### Etxean ba al duzu kandelarik argia joaten denerako?

Bai, baita San Pankrazio ere.

### Zein da zure hnteko gauzarik onena?

Argia bera egitea, era berean gauzarik errazena eta onena da.

### Aldatzekotan zein beste lanbide aukeratuko zenuke?

Elektrizista izateaz gain, agente inmobiliarioa ere banaiz, baina aukeratu ahal izango banu, ikaslea izango nintzateke betirako.

### Gogoan duzu lanean gertatutako anekdotarik?

Gau batez, 22:00etan, argirik ez zutela eta etxe batera joateko deitu zidaten. Fusible berria erosi zutela esan eta begiratzeraz joan nintzenean, fusiblea behar zen lekuan, pila normal bat ipinita zeukatela konturatu nintzen.

### Lanetik irtendakoan...

Paseara bat emateko eta pote batzuk hartzeko aprobeztatzen dut denbora.

JIL



**IkaSik**

Argazkia  
NAN.  
Matrikula  
700 pta.

**gtek**

Argazkia  
NFIN.  
700 pta.

TXARTELA

**gazte**  
informazioa

10i Make> DIARTELA

Argazkia  
NAN.  
Lan kontratuaren  
Frogagiria  
1.000 pta.

A erpebñen liburugTcY  
seggSinn,ita.ton

eRgek1j11

TXARTELA

**GAZTEA** (14<25 urte)  
NAN.  
500 pta.  
Gazte Txartelarekin 250pto.

**HELDUA** (25<)  
NAN.  
1.000 pta.

**FRMIURKOR**  
NAN.  
3.000 pto.

**TRLDEKOA**  
Partaideen zerrenda  
Estatutuen kopio  
2000 pta.  
Dohainik EJko elkirtean partaideak





# BaRRRen

## Kilimonek puntu bakarra lortu du ligako lehenengo jardunaldian Bina amaitu zuen, etxean, Ondarruko Aurrera taidearen kontra

**O**ndarruko Aurrera hartu zuen etxean Kilimonek, eta markagailuan aurretik jarri bazen ere, azkenean binako berdinketarekin bukatu zen norgehiagoka. Eguraldiak asko lagundu ez zuen arren, Ospasgain futbol zelaian bildu zen jendeak gogotsu animatu zuen taldea, baina ezin izan zuten garaipenik lortu. Beraz, puntu bakarrarekin, seigarren postuan ditugu mendarotarrak. Datoren jardunaldian Zestoan jokatu



dute bertako taldearen kontra. Zestoarrek lortu dute dagoeneko beren lehenengo garaipena. Beraz, ez da partidu erraza izango. Kilimon garaipenaren bila joango da Zestoara,

eta hiru puntuak lortzeko ahal duen guztia egingo du.

## nin Leike"-k eta Udalak antolatuta bertso bikaina izan zen frontoian idapan 14an

ertso saio bikaina eskaini zuten Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Amets Arzallus, Sustrai Kolina eta Arkaitz Estiballesek Goñati frontoian. Gau hotza bazen ere, ederki berotu zuten giroa bertsolariak. nando Loiola, neko jokalaria eta entrenatzaile ohia, aritu zen gai jartzaile lanetan, eta besteak beste, EEBBetako atentatua eta Kontxako banderaren polemika izan ziren aukeratutako gaiak. Frontoia jendez gainezka zegoen, eta bertsozaleek ikaragarri gozatu zuten. Lizaso eta Egaña bi-




kain aritu ziren, etabertsolari gazteek handien mailan daudela demostratu zuten. Bertso oso onak bota zituzten guztiek, eta ikusleek txalo zaparrada handi batez eskertu zuten ahalegina.

## "Euskal Herria eta Dinosaurioak" erakusketa udaletxean

Urriaren letik 27ra bitartean "Euskal Herria eta Dinosaurioak" ize-neko erakusketa izango da ikusgai udaleme berrian. Astearte eta ostiraletan arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara, eta larunbatetan 17:00etatik 20:00etara egongo da irekita. Antolaketa arazoak egon ez daitezten, talde handiei ikustorduak aurrez hartzeko eskatzen zaie.

## Pintura, birziklaia, gantxiloa eta puntua jubilatuentzat

Lagun Betikoak Jubilatuen Egoitzak Iau ikastaro hauek antolatu ditu jubilatuentzat. Aurreko urteetan sekulako arrakasta izan dute ikastaro hauek, bai antolatzaileen aldetik, eta baita partehartzaileen aldetik ere. Hemen egindako lanak Kultur Etxean jarriko dira ikusgai. Norbaitek izena eman nahi badu, Jubilatuen Egoitzan bertan egin dezake.



# Txikia izanik hasi da

*Azken urteotan Mendarora herri txikia izatetik eskualdeko herri garrantzitsuek izatera pasatu da. Inguruko herrien anaia txiki izateari ufi eta bere kabuz, ando baino hobeto moldatzen ikasi du. Mendarora gero eta handiagoa egiten ari da, eta jende gazte askok, bertan topatu du bizilekua. Herri txiki gehienak denboraren poderioz hutsik gelditzen diren heinean, Mendarora guztiz konirakoa gertatu da. Gero eta gehiago dira kanpotik bertara etortzen direnak. Arrazoi desberdinak direla medio, Elgoibar, Eibar eta Mutriku aldetik gazte ugari etorri da Mendarora, eta hori aspektu guztietan posifiboa da.*

**M**endaroren hazkundera alor guztietan eman da, baina bereziki etxebizitzetan nabari da. Duela bederatzita urte Mendaroko arau subsidiarioak onartu ziren, eta handik aurrera etxebizitzak erai-ki tzea askoz errazagoa izan da. Orain mornentuan 225 etxebizitza erai-kitzen ari dira, eta guztiak salduta daude bukatu aurretik. Udaletik adierazi digutenez, eskaria oso handia da, eta batez ere jende gaztea da kanpotik datorrena. Anton Zubiaurrekin, Udaleko Hirigintza Arduradunarekin, aritu gara

**225 etxebizitza egiten ari dira, eta guztiak salduta daude bukatu aurretik**

hizketan, eta beraien helburua Mendarora gaztetzea dela adierazi digu. Bere hitzetan, etxebizitzetan prezioa Mendarora merkeagoa da inguruko herrietan baino, eta hori da jende gazteak behar duena. Hasieran oso zaila zen Mendarora bezalako herri txiki batean etxeak hain erraz salduko zirela pentsatzea, eta horrek konstruktora bat baino gehiago atzera bota zuen. Bestalde, lur sailak jabego pribatukoak dira, eta horrek ere arazoak sortzen ditu sarritan. Anton Zubiaurrekin esan bezala, Azpiazua lantegietan 12 etxebi-

## "Mendarora ez dago estresik"

LUCIA CASQUERO. MENDARORA BIZITZERA JOAN DEN ELGOIBARTARRA



*Azkenaldian jende ugari joan da Mendarora bizitzera, eta horietako bat dugu Lucia Casquero. Bi urte daramatza dagoneko bertan bizitzen, eta oso gustura dagoela adierazi digu. Berak familia eta lana Elgoibarren dauzka, eta denbora asko pasatzen du oraindik bertan. Hala ere, Mendarora bizitzeak abantaila ugari dituela kontatu digu.*

### Zer dela eta joan zinen Mendarora bizitzera?

Etxe txiki baten bila nabilen. Elgoibarren neukanaren antzera, toki eguzkitsua, lasaia eta aurrealdea. Toki librea edukitzea nahi nuen, baina txikiagoa. Ez nuen horrelakorik aurkitu, eta egiten ari ziren etxe berriek ere ez ninduten konbentzitu. Mendarora aurkitu nuen ezaugarri horiek guztiak betetzen zituen etxebizitza.

### Ebe berria erosi al zenuen?

Bai. Herriko Enparantzan dago, udaletxearen ondoan, Kutxa, Botika, Jubilatuen Egoitza... dena daukat bertan. Oso toki onean dago, eta aldi berean, ingurunea oso lasaia da. Gainera, neguan eguzkiak jotzen du gure etxean, eta udan ez.

### Nola moldat lanera etortzen?

Egunero irek lardenda, berderen bat de behar dut. G ordutegi konks eta hori erres har da. Zoriori katuta dago eta trena hartzea. kera trena iza hilabeteko bctzen da.



# Jandiitzen Mentro

zitza egingo dituzte, eta garajearekin batera, prezioa 16 milioitakoa izango da. Kasu honetan lehentasuna izango dute urte betez Mendaron herritartuta daudenak, bertan bizi direnek eta beste etxebizitza propiorik ez dutenek. Hala ere, kanpoko jendea ere apuntatu daiteke.

Proiektu honen helburua argi utzi digu Anton Zubiaurrek: "Gazteei irtenbide bat emateaz gain, etxebizitza prezioa orekatu nahi da; izan ere, azken lau urteotan %25ean egin dute gora. Honekin batera, Garagartza auzoa berritzen saiatuko gara".

Etorkizunari begira proiektu ugari ditu Udalak eskuartean, baina aurretik arau subsidiarioen errebisioa bukatu beharra dago. Anton Zubiarrek esan digunez, "horrek pare bat urte iraungo du oraindik, baina gero 600 etxebizitza eraikitzeke aukera

izango Lur sail ugari omen dago, beraiek momentuz, ospitaleko zonaldea, tren geltoki ingurua, mojen kontentua eta Azpilgoeta auzoa aukeratu dituzte.

**"Datozen urteetan 600 etxebizitza eraikitzeke aukera izango da"**

**ANTON ZUBIAURRE**  
Udaleko Hirigintza Arduraduna

zak oso argi ez dauden arren, Anton Zubiaurrek esan digunez, aeronautika enpresa garrantzitsubate Mendarora ekartzeko tan dabilzala. Honekin batera, ospitalaren eraikuntzak ere, asko lagundu dio Mendaroko herriari. Izan ere, eskualdeko osasun zentro garrantzitsuena da. Gauzak horrela, aintzinako Mendaro zaharrari agur esan, eta herri gazte berri bati ongietorria eman beharrean gaude.



**ANTON ZUBIAURRE**  
Udaleko Hirigintza arduraduna

**In za ra co?**

Dehar dut bez, garraiobigorez hartu nera, dendak ftu bat dauka, !tatu egin bez Mendaro oso ondo komuni-aukeran daukat autobusa edo Cotxea ere badaukat. Nire auda. Garaiz iristen da beti, eta oa hartuz, oso merkea atera-

**"Mendaro herri lasaia da baina, aldi berean, bertako jendea oso aktiboa da"**

tara: lasaitasuna nahi nuen. Herriaren erdi-erdian bizi naiz eta isiltasuna ikaragarria da. Hai-zea entzuten da asko eta hasieran arraroa egiten zitzaidan, baina ez nau molestutzen. Bestalde, jendea oso aktiboa da, eta gauza asko egiten dituzte. Jubilatuen Egoitzan informatika kurtsilok ematen ari dira, eta gu dietetika jardunaldi

**Aldaketa handia izan al da?**

Mendaron bizitzea zoragarria da. Herri txikia denez, oso lasaia da, ez dago estresik eta ez da jendea alde batetik bestera korrika ikusten. Horren bila joan nintzen ber-

batzuk prestatzen ari gara. Jai eta kultura alorrean ere, ekitaldi ugari antolatzen dituzte. Herri lasaia, baina aldi berean mugimendu handikoa dela esan daiteke.

**Igarri al duzu azkenaldian handitzen ari dela?**

Bai. Poliki-poliki Mendaro herri handia bilakatzen ari da, eta kanpotik jende asko dator bertara bizitzera. Nik ez dut nahi asko handit-zerik, baina bertakoentzat garrantzitsua izango da agian, ekonomikoki haztea oso inportantea baita.



*F*

ilabete honetako erretratu zaharra **Pedro Iriondok** eta **Kontxita Urbietak** laga digute. Duela 79 urte ospatutako ezkontza batekoa da, 1922 urtean, hain zuzen ere. Ezkonberrien eta beste pertsona batzuen izenak lotu ahal izan ditugu baina hainbeste daudenez, urte pila hori igaro eta gero, ezinezkoa izan zaigu guztien izen-abizenak lortzea. Ea zuetakoren batek norbait ezagutzen duen. Hauek dira tartean azaltzen diren batzuen izenak, denak lehen ilarandaude:

Ezkerretik eskumara: **Domingo Esnaola**, **Fermin Iriondo (t)**, **Martina Arriola (t)**, ezezaguna, ezezaguna, **Manuel Arakistain (1<sup>o</sup>)** eta **Francisca Iriondo (t)** (ezkonberriak), **Pedro Iriondo (t)**, **Manuela Azpiazu (t)**, **Josefa Arakistain (t)** eta ilarako gainontzekoak, ezezagunak dira.





<b><i>Eusko</i></b>	TRENAK	<b><i>Eusko,</i></b>	AUMBUSAK
<b>DONOSTIA-BILBO</b>		<b>MENDARO-ELGOIBAR</b>	
Egunero		Egunero	
Donosia <b>ISRNA</b> 5.45 ry6.45... 20.45		Mendaro 07.50 014.50.. 21.50	
Elgoibar 07_02 08.02.. 22.02			
• joitegunetan 1.15ean hasiko dira		<b>ELGOIBAIMENDARO</b>	
<b>BILBO-DONOSTIA</b>		Astegunetan	
Egunero		Elgoilrar 07.25 08.25 10.25 21.25	
Bilho 06:00 7.011... 20.00		<b>Jalegunetan</b>	
Eguihat 07.23 21.23		Eigothar 0K25 09.25 10.25... 21.25	
• jaingunetan K.O.Detan hasiko dira			

### AUTOBUSAK

PESA autobusetako informazioa lortzeko deitu  
Eibarko informazio bulegora. TeL 902 101 210,

## Farmazia - okindegia

### EGUNEZ

29 Bidasolo\*  
30 Bidasolo\*  
Yudego  
2 Zabaleta  
3 Etxeberria  
(Errosario kaleard  
Escala  
Bidasolo

### GAUEZ

Fernandez  
Fernandez  
Yudego  
Zabaleta  
Etxeberria  
Escala  
Bidasolo

### FARMAZIAK

ESCA1A, Rekalde, 1 Soraluze.  
Tel. 943 75 16 38  
FERNANDEZ,  
Herriko enparantza 4, Garagarza  
Tel 943 75 61 42  
ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze  
Tel: 943 75 13 84  
\* eguerdika 2ak arte

### OKINDEGIA

30 igandea Eizagirre

### OSASUNA

Anbulatorioa ..... 943 03 26 10  
Planning-a ..... 943 74 29 50  
Alkoholiko Anonimoak ..... 94374 03 85  
D.Y.A (anbulanzia) ..... 943 46 46 22  
Gurutze Gorria ..... 943 74 38 64  
Mendaroko Ospitalea ..... 943 03 28 00  
Odol Emaileak ..... 943 74 39 36

### GARRIAOK

Eusko Trenbideak ..... 943 74 04 42  
PESA (Eibar) ..... 902 10 12 10  
Taxi geltokia ..... 943 74 08 98

### UDALA

Euskara Zerbitzua ..... 943 74 43 66  
Lidal Kirol Patronatua ..... 943 74 44 15  
Kultura Zerbitzua ..... 943 74 21 58  
Mendaroko Udala ..... 943 75 61 00  
Ongizate zerbitzua ..... 943 74 10 08  
Udaletxea ..... 943 74 10 50  
Udaltzaingoa ..... 943 74 13 94

### BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra ..... 943 74 16 26  
Kiroldegia ..... 943 74 44 15  
Kontsumo Bulegoa ..... 943 74 30 88  
Liburutegia ..... 943 74 35 25  
Musika Eskola ..... 943 74 21 45  
Mintxeta ..... 943 74 43 15  
Parrokia ..... 943 74 08 42  
Postetxea ..... 943 74 15 47  
Gaztetxea ..... 943 74 35 72

### ADINEKOEN ETKEAK

San Lazaro Egoitza ..... 943 74 02 96  
Zaharren Biltokia ..... 943 74 05 26  
Eguneko Zentroa ..... 943 74 45 65

### IKASTETXEAK

Haur Eskola ..... 943 74 21 41  
HHI (EPA) ..... 943 74 08 80  
Herri Eskola ..... 943 74 08 79  
I.M.H. .... 943 74 41 32  
Institutua  
Arreiturre ..... 943 74 80 19  
Ezenarro (Meka) ..... 943 74 80 19  
Ikastola ..... 943 74 44 41  
Pilar Ikastetxea ..... 943 74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN ..... 943 74 41 12  
El Diario Vasco ..... 943 74 40 73  
El Correo Español ..... 943 74 10 82  
Zazpiki irratia ..... 943 74 34 74  
Egunkaria ..... 943 30 02 28  
Gara ..... 943 31 69 99

## CHERKI IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan  
konponduko dizugu igogailua

tt' 943 82 01 09 Faxa: 943 82 01 62  
indalezio Ojanguren 2, beheka 411 **20600 EIBAR**



**kartiano**

San Frotzisko, 14 TeL 943 74 05 49





**MAITE URIARTE GIL**

**URRUZUNO LITERATUR SARIAren poesia arloke irabazlea**

## II Poesiari esr(er aiaiatzia ortu dot"

*Ez du bere burua poesia idazle bezala ikusten. Orain arte kasualitatea izan amen du lagun eta sariketara ere bidaia irabazteagatik aurkeztu omen da. Azkena Urruzuno literatur saria izan da. Bere lanak, "Sua sutan" izenburupean, poesia arloko lehen saria irabazi du eta trukean, Europan zehor bidaiatu du beste hainbat sariturekin batera. Maitek berak azaldu digu zer nolako esperientzia izan den.*

### • "Sua sutan" izenburua eman diozu zure lanari. Zer esaten da zure poesian?

Bakoitzak nahi dabana ulertu leike. Ez dakitx zeri buruz idatzi naban. Irakurtzen dabanak nahi dabana ulertuko dau. Bakoitzak era batera ulertzen dau-eta.

### • Asko landutako poesia al da?

Ez, asko landutakoa ez. Epia gainian nakan. Bi edo hiru egun falta zian bakarrik eta zerbaitx bialtzia nahi naban.

### ■ Lehiaketan maila ona zegoe-la iruditu al zaizu?

Oso ona. Hiru edo Iau urte segidan irabazi zaban jendia zauan. Askok lan bat baino gehixao presentau ditzue eta hola aldiakin jokutzen dabe, beti ere irabazteko posibilitadadia haundixaua da-ta.

### ■ Pertsona asko aurkeztu al zarete Urruzuno sarira?

Bai, Euskadi mailan dala kontutan hartuta, 200 pertsona baino gehixao presentau ginan kategorixa diferentietan. Juan zan urtian ere presentau naban lan bat. Aurten ere eskolan parte hartzeko posibilitadadia eman ziguten eta presentau ein naban. Institututik danera 10 pertsona presentauko ginan. Gainontzekuekin konparauta, ez da kantidade haundixa.

### • Zein da irabazi duzun saria?

50.000 pta. eman dizkigute gastuetarako eta irabazle danak 10 eguneko biadjia ein dogu Europan zihar.

Holanda, Belgika eta Frantziara jun gera, dana ordaintuta.

### • Guztiak literatur sari baten irabazleak izanda, bidaian eduki duzuen giroa ere hortara mugatu al da, hau da, idazleen arteko giroa izan al da?

Holakuetan beti ematen dau "enpolliSn" koadrilla bat juntau gareia baina ez daka zerikusirik, gero danak "pertonaje" batzuk dia-ta.

### • Gustatuko al litzaizuke poesian norbait izatera iristea?

Euskarazko poesian oso zaila da, ezinezkoa, esango naban nik. Oso-oso ona izan bihar zera zerbaitx eitxeko eta...ez dot uste nere kasua danik.

### • Zer da poesia zuretzat?

Noizian behin gustora irakurtzen dot poesia, baina ez da ezer serixua neretzat. Ni ez naiz poesia idazlea sentitzen. Jendiak poesia beti maitasunakin eta holakuekin lotzen dau, baina ez daka zertan hola izan biharrik. Neretzat sentitzen dozuna ezkututzen bezala esatia da poesia. Ez dakazu zertan gauzak garbi esan biharrik, gero bakoitzak nahi dabana ulertuko dau.

### • Hurrengo urtean lehiaketara aurkezteko asmorik ba al duzu?

Biajia berriro eitxeko eta aurten eon naizen jendiakin berriro egoteko presentau nahi dot, baina oso zaila da.

"Sentitzen dozuna ezkututzen esatia da poesia neretzat"

"Urruzuno sariko irabazle danak 10 eguneko bidaixa ein dogu Europan zihar"



ETORRI GURE ARTUO

Para entender y hablar con mis

euskara ikastera

Irakurri eta idatzi ahal izaten o

# MATRIKULAZATEZ

## Mueveteiat tstit-alempo!

Udal Euskaltegia  
Nafarroa plaza, 2  
Tel. 943 742 731

[elgoeuskal@udal.gipuzkoa.net](mailto:elgoeuskal@udal.gipuzkoa.net)

aki( euskaltegia  
Plaza txikia, 3  
Tel 943 741 332

[elgoibar@aeknetnet](mailto:elgoibar@aeknetnet)

Porque lo necesito para traba lar

Pg. 14.1  
**arigera**  
himmInh amazame

Heiduen  
euskaldunze-allabetatzea  
susperizeko proiektua

Informazio gehiago: Arigera proiektua, Ubitarte 4, behea • Tel. 943 741 626 (Amaia) • [arigera@inf-negocio.com](mailto:arigera@inf-negocio.com)



Udal Euskara Zerbitzua





# Osasuneai adituak

osasuna

## UMEAK GAISOTUZ GERO...

**E**txeko txikiak eskolan hasi dira, eta maiz entzun izan dugu gaisotasun infekzioso asko klasean hartzen diren kontu hori.

### PREBENTZIOA. AHOLKUAK.

- **Eskuak garbitu:** Eskoiatik etxera bueltatzean, jatorduen aurretik, komunean egon ostean edo animaliak ukituz gero.

- **Antibiotikoek ez dituzte birusen infekzioak sendatzen:** Griperean edo katarroaren sintornak gehienetan birusen batek eragindakoak dira.

- **Umeei ez eman aspirinarik sukarra jaisteko:** Birus infekzio bat duen bitartean hartuz gero, Reye sindromea eragin dezake.

### ETXEKO ERREMEDIKAK

- **Barizela:** Azkura baretzeko ur epeletan bainatu (urari bikarbonato piska bat bota). Parasetamolak sukarra jaitzi eta egonezina arinduko du. Granoak erabat lehortu arte (7 egun) ez bidali eskolara. Jaki arinak jan.

- **Katarroak:** Likido asko hartu (laranja, pometo edo limoi zumoak eta oilasko salda). Lo askoegin.

**Ez gaisoneko garrantzitsua da higieneari kasu egitea**

Eukalipto belarren ur lummak hartu. Sudurreko kongestioa kentzeko gatz-ura inhalatu.

- **Zorriak:** Txanpu eta lozio bereziak erabili. Bunia sarri garbitu eta ur eta ozpin zuriarekin akklaratu bartzak (zorrien arrautzak) askatzeko eta orrazi finarekin orraztu.

- **Gastroenteritisa:** Botaka egiteari uzten dion artean ez eman jateko edo edateko ezer. Ura, limoi erdi baten zumoa, goilarakada bat azukre eta bikarbonato piska bat nahastu eta trago txikitan hartu.

- **Faringitisa:** Sendagileak agindutako botikez gain, C bitaminadun gozokiak, berakatz zopa eta infusioak gomendagarriak dira. Ura eta gatzarekin (litro laurdeneko goilaratxo bat gatz) gargarak egin.

## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

**Kemen** Belardenda (Medikuntza naturala. F. de Bach, masaa, makrobotika, yoga)

..... San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

**SuryaBelardenda**(Osasun naturalaren zure zentroa Elgoibarren. Informa zaitetz)

..... San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

## OPTIKAK

**Ikus** (Optiko-optometrista)

..... San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri** (optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

..... San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

## ORTOPEDIAK

**Itziar Sarasketa**

..... San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

## PODOLOGOAK

**Ibiltzen**

..... Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**

..... Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

**Iñaki Rivero**

..... San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

..... Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

**Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra**

Osasunari buruzko kezka bat argitu **nahi baduzu, deitu BARRE**Neko 943 74 41 12ra



## Futbola, 2001/2002 denboraldia. Taldeen aurkezpena.

# infantilak

**C.D. Elgoibar Elkarteko 6 taldeek hasi dute futbo1 denboraldia jadanik, baita Pedrusko taldeak ere. Dafozen asteotan aurkeziuko dizkizuegu denak, hau da; Haundia, erregionala, nesken taldea, jubenilak, kadeteak eta infanti1ak. Aste honetan gaztetxoenei tokatzen zale txanda, infantll mailako taldeari, alegia. Infantilek 13 urte dituzte eta figako lehen partidua 0 eta 5 irabazi zuten Eibartarrak taldearen etxean. Ia hasiera bikain honek jarraipenik duen, animol**



### Tente, ezkerretik eskumara :

Jorge (entrenatzaile laguntzailea), Ander Eizagirre, Asier Urkidi, Mikel Elustondo, Sergio Martinez, Gorka Otero, Egoitz Zulaika, Mikel Arraiz, Unai Arce, Hasier Larrea, Andoni Lersundi eta Andres (entrenatzailea).

### Makurtuta:

Ander Martinez, Jokin Muñoz, Jael Lizundia, Xabi Elorza, Josu Abad, Ekaitz Insausti, Borja Tornos, Aitor Arruabarrena, Patxi Loiola, Andoni Gomez eta Igor Ulibarri.

## Ehiza Heheko txapelketa Urnohitza jokatu da dornean, hilaren 30ean

**L**a Union Ehiza eta Arrantza Elkarteak antolatuta, irailaren 30ean, domekan, Ehiza Xeheko Txapelketa jokatu da Urnabitza mendian. Goizeko 9:00etan hasiko dira ehiztariak eta txakurrak lanean eta 13:00etan hanatuko dira sariak. Izen ematea egunean bertan egin ahal izango da 7:30etik 8:00etara bitartean. Bazkideek 3.000 pezeta ordaindu beharko dituzte txapelketan parte hartzeko, eta bazkide ez direnek, berriz, 4.500 pezeta. Ehiztari bakoitzak Federazioko haimena eta epailea eraman beharko ditu.



*Txomin Rogel elgoibartarra (ezkerrean) izan zen iaizko irabazlea*

## EMAITZAK

### Futbola

**Haundi 1** Aloña Mendi 0 (Pret.)  
Elgoibar 1- Bergara 1 (1. erreg.)  
Elgoibar 1- Mondragon 0 (neskak)

### Esku pilota

**Lagunak Txapelketa**  
**Gipuzkoako Txapelketa**  
Agirrebefallriondo **22** (Lagunak)  
Elurbe/Aurkia **16** (Zazpi Kurri)

Muguruza/Balzola **18**  
Lala/Zabala **22** (Goiherri)

Ansola/Lazarobaster **22**  
MujikalAburuza 11 (Erniope)

### Idarraga kafeak 5. saria

**HAUNDIko** jokalaririk erregularrena 00/01

**JOKALARIA** ..... **PUNTUAK**

1- J. tgartua .....	17
2- Salaberria .....	10
3- Guinea .....	7
4- Navarrete .....	6
5- Caro .....	6
6- Ugalde .....	4
7- Leonardo .....	4
8- Bravo .....	3
9- Azpiroz.....	3
9- Zubiaurre .....	2
9- Mujika .....	2

## AGENDA

### Esku pilota, Ikastolan

**Barixakua, 28**  
**Gipuzkoako Txapelketa**  
**22:00** Lagunak - Behar Zana (**Jub.**)  
**22:45** Lagunak Aurrera (**Nag.**)  
**23:15** Lagunak - Alde Zaharra (**Nag.**)

### Futbola, Mintxetan

**Zapatua, 29**  
**16:30** **Haundi** - Beti Ona (**Prof.**)  
**Domekia, 30**  
**10:45** Elgoibar- Almen (Int.)  
**12:15** Elgoibar Idiazabal (kad.)

## Upetako sorosle eta lehen laguntzetako titulua lortzeko ikastaroa Hipoldegian

Urriaren 22tik abenduaren 21era bitartean uretako sorosle eta lehen laguntzetako titulua lortzeko aukera izango da Olaizaga Kiroldegian. Elgoibarko Udak Kirol Patronatuak eta Gipuzkoako Salbamendu eta Sorospeneko Federazioak elkarlanean antolatu duten ikastaroa da. Orduetegiari dagokionez, astelehenak, asteazkenak eta ostiralak izango dira klase egunak 19:00etatik 22:00etara. Urriaren 17an bukatuko da izena emateko epea. Prezioa 50.000 pezetakoa da. Interesatuok Olaizaga Kiroldegira jo dezakezue edo 943 74 44 15 telefonora deitu.

### hst Langai Euskal Lan Zerbitzua

Debabarreneko enpresa baterako autoen mekaniko logunzailero behar da. **ERREF: 59967/2.**

Debagoieneko enpresa baterako ingeniari tekniko komertziala behar da. **ERREF: 60036/4.**

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Durango alderako tornularia behar du. **ERREF: 59648/2.**

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Elorrioko lanpostu baterako metalgintzako teknikaria behar du. **ERREF: 59719/4.**

Akli baterako lan kontratazio enpresa batek Bergarako lanpostu baterako metalgintzako FP IIa duen pertsona bat behar du. **ERREF: 59776/3.**

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Durango ingururako langilea behar du. **ERREF: 60233/5.**

Durango inguruko enpresa batek inkestatzailea behar du. **ERREF: 60289/1.**

Durango inguruko enpresa batek soldaketerako irakaslea behar du. **ERREF: 60334/2.**

Durango inguruko erremintct eta lan tresna enpresa batek teknikaria behar du. **ERREF: 58252/3.**

Debabarreneko enpresa batek sukaldarera laguntzailea behar du. **ERREF: 59293/4.**

Durango inguruko enpresa baterako rektifikatzailea behar da. **ERREF: 59460/4.**

Hauk gai moduan sartzea eskatu nahi baduzu 901222901 telefonora deitu edo Lan,ark Elgoibarren dituen zentru kguntzaile hauek batera deitu: Elgoibarko Institutua (Alberto Iturricasillo) 943 74 80 19 edo IMH (Ekaltz Mendizabal) 943 74 41 32 telekonora.

## Etxebizitzak

\*Pilua edo logela alokatuko nuke. Premiazkoa da. **ir 636 42 71 77.**

• Pisua edo buhardilla alokatuko nuke. Premiazkoa da. **mr 630 72 52 44. Elena.**

Bikote batek pisua edo apartamentua behar du alokairuan edo **mr 650 27.74 15/650 01 10 95.**

Etxe edo buhardilla bat alokatuko nuke. **mr 636 91 61 70. Ion.**

• Etxe txiki edo atiko bat erosiko nuke Donostian. **mr 943 75 51 47/ 616 56 21 35.**

• Villamedianan, Logroñon, txaleta salgai. Garajea, sotoa, pizina eta ingurune zoragarria. **ts 943 74 02 68.**

• Etxebizitza salgai San Roke 7an. **mr 943 74 17 95.**

• Etxe bat alokatuko nuke Elgoibarren. **mr 605 71 34 81.**

\*Etxebizitza alokatuko nuke Elgoibarren. Anjel. **mr 677 412 58 59/ 943 74 80 65.**

• Pisua behar dut alokairuan. **mr 943 74 19 23. Marijo.**

Etxebizitza konpartituko nuke edo logela bat alakalu. Karmen . **mr 678 38 35 61.**

logelak olokatzen dira, San Roke kalean sukaklea erabiltzeko aukerarekin. **mr 943 74 12 10/ 943 74 88 53.**

## Bestelakoak

• Irailaren 21ean txaketa bakeroa galdu nuen tkastolako saskibaloiko kanbcan (behekoan). Aurkitu duenak eraman dezala bulegora mesedez.

• Walkman bat galdu nuen Pista Beltzart irailaren 14an. **mr 943 74 16 61.**

\*Urtean zehar arratsaldeetan Eskoriatzara joaten den norbaiten bila gabiltzcr gastuak banatzeko. Oihana. **mr 943 75 62 35.**

\*Katua oparitzen dut. **12 943 74 39 19.**

• Giltzak galdu nituen hilaren 3an Minbreta inguruan. **943 70 18 41.**

\*Hilaren 2an, Urkiola tabernalik Madalara bitartean eguzkitako betaurrekoak galdu nituen, patilla metalikoe-kin. **17 943 74 15 69.**

• Gozteixean liburutegi berria jartzeko proiektua dago. Herritarren 6at liru-ruak emateko prest badago, bila jongo gara.s. **943 74 35 72.**

♦ Koritosek arropak jasotzen ditu urte guztian, hileko lehenengo asteazkenean.

### ESKAERA

\*Emakume batek bere burua eskaintzen du haurrak edo pertsona nagusiak zaintzeko. **114 679 26 26 00.**

\* Garbiketa lanak egiteko emakumea eskaintzen da. **mr 943 74 22 01.**

• 18 urteko neska batek bere burua eskaintzen du lanerako. **mr 686 22 62 74.**

### ESKAINTZA

♦ Ingelesa menperatzen duen adminislraria behar da. **u669 17 01 81 (Juani),**

\*Emakumea behar da etxeko lanak egiteko eta emakume nagusi bat zaintzeko. **tr 943 74 11 60.**

• Pertsona bai behar da Mendaron arratsaldeetan ume bat zaintzeko. **tr 943 75 52 07.**

• Sukaldari lagunkailea eta kamarera behar dira Elgoibarko jatetxe batean lan egiteko. Euskaraz jakitected kontuan haduko da. Bidali kurrikulurnak helbide honetara: 133 p.k. **20600 Eibar.**

\*Neska euskalduna behar da Eibarren bi ume zaintzeko eta etxeko

lanak egiteko. a **696 24 70 50.** Yolanda.

♦ Eibarko "Lisker" erromeria taldea abeslari baten bila dabil. Trikitia edo gitarra jotzen badu, hobe. **mr 943 20 04 25/ 627 53 78 62.**

\*Kamarero bat eta edalontziak jasotzeko pertsona bat behar dira. **• 943 74 42 65. .**

• Tabernan lan egiteko neska euskalduna behar da. **mr 943 74 31 17.**

\*Tabernan lan egiteko pertsona bat behar da. **mr 943 74 02 28/ 659 32 33 46.**

\*Emakume euskalduna behar da goizetan etxeko lanak egiteko. **m. 686 22 63 35.**

\*Gorpuzkera indartsuko pertsona behar da biltzikoko lanak eta banaketa egiteko. s **655 74 03 94/ 943 74 18 67** asteburuetan.

• Emakumea behar da bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 3 edo 4 ordu goizero. **943 74 13 55.**

• Neska euskalduna behar da egu-nero tabernan lan egiteko. **mr 687 05 17 89.**

• Ingelesko klaseak ematen ditut Mendaron. **irr 943 75 52 09.**

• Ingeles filologian lizentziatuak klase partikularrak ematen ditu. **mr 943 74 10 91. Eider.**

• Kurtsoa hasi berri dela-eta laguniza behar duzula? Guk ernango dizugu behar duzun bultzada. **DBH 2ra** arthoko ikasleentzako klase partikularrak. Bidatz **mr 943 74 10 44/ Eulali mr 617 76 89 16.**

• Fisika, kimika, matematika eta biologiako klaseak ematen ditut. Takle brikiak egingo ditut. Maria. **tr 943 74 29 85.**

## Garajeak

• Garajea salgai Olasoko poligononan, **tr 630 63 79 78. Martin.**

• Garajea salgai Arregitorren. **mr 943 74 07 62.**

Grojoera alokatzen dut Arregitorren. **137 943 74 18 81.**

## Lokalak

• Lokala salgai Pedro Muguruza 10ean. 62 m<sup>2</sup> ditu, **mr 943 74 06 85.**

• Marbtan dagoen taberna alokatzen da. Bezero fijoak. ser **943 74 03 92.**

## Salerosketak

• Mercedes 190 autoa salgai. 350.000 pta. 150.000 km. **mr 630 35 94 32.**

Autoa salgai. Citroen Visa. **25.000** pta. **tr 649 61 31 34.**

\*Play Stationaren "Falcon" pistola salgai, Mira laserduna, atzerakadarekin, "Namcotm" jolasekin konpatiblea (elikagailua du), arma espezialaren botoia ere badu. **17 646 563 706**

• 2 kainoiko eskopeta salgai. Gogor morkokoa. Prezio onean. **tr 943 740079,**

• 15"tako estreinalu gabeko ordendore pantaila salgai. 13.000 pta. **mr 943 74 39 24.**

\*Gas-gas 2.5 motoa salgai. Egoera onean. a **943 79 97 72.** Gaizka Mondragon.

\*Cliroen X 1.600 salgai. Egoera onean. a **943 74 23 08.**

\*Aprilia SR-50 scooterra salgai. 100 km/h. 3 urteko garantio. Yosuni eska-pea. Polini bariadorea. Progrid mangitoak, Malossi rodilloak, Beti gorajean. Kaskoak eta pieza orijinalak Kubierra berriak, Abuztura arte ase-guratura, **mr 652 71 84 34/ 943 74 22 47.** Arkoitz.

\*Lasterkarako zinta salgai. **mr 686 22 62 74.**



**OHARRA:**

Merkatu txikirako mezuak  
ekartzeko azken eguna  
asteazken eguerdiko  
1 3:30a da.



\*Zorionak **Julen**. Haritzen eta familixakuen partez.



• Zorionak tia **Eli**. Orain eta lehen, beti eder. Muxu haundi bat ikoben partez.



♦ Zorionak **Correcaminos** eta segi aurrera! Familiakoena eta bereziki, Mikelen partez.



• Zorionak **Xuban** zure lehen urtetxoagatik. Osaba-izebak.



\*Zorionak **Ioritz**, urriaren 3an 4 urte beteko dituelako. Gurasoen eta aitona-amonen partez.



♦ Zorionak **Iñigo**. Kontuz euroekin! Familiakoena eta bereziki, Mikelen partez.



• Zorionak **Jaione Maguregiri**, gaur, hilak 28, 9 urte bete dituelako. Gurasoen, ailonen eta amama Rosaritoren partez 9 tirakada.



Zorionak **Mikeli**, irailaren 30ean 9 urte beteko dituelako. Familiakoena partez.

Zorionak **Asierri**, bihar, hilak 29, 10 urte beteko dituelako. Familiakoena eta bereziki, arreba Nerearen partez. Ondo pasa eguna,



♦ Zorionak **Virginia Barriada** Alonsori, atzo, hilak 27, 31 urte bete zituelako. Musu handi bat familiakoena partez.



• Zorionak **Lorea RiaBori**, haren 25ean 10 urte bete zituelako. lehengusu-lehengusina losu, Esther eta Mariaren partez.

♦ Zorionak **Anetxori**, atzo, hilak 27, 13 urte bete zituelako. Ala, in hori! Bat, bal, bat eta jan gominola! Ondo pasa, mahasposa!

• Zorionak **Asier Bacholari**, bihar, hilak 29, urteak beteko dituelako. Ikastolako 5B gelakoena eta bereziki, Mikel Mikel O., Borja, Iñigo P., Josu C. eta Jon A. ren partez.

**BEKA**

Ikerketa beka:  
"Garardoa eta Osasuna" gaitzat izango duten karrera amaierako edo graduatu ondoko ikerketak egiteko 2 beka. Garardoa eta Osasuna Informazio Zentroak antolatuta. Dokumentazioa aurkezteko epea: azaroak 15.

Euskara ikasteko beka  
Autoikaskuntza-sistemaren bitartez euskara ikasten duten pertsonentzako laguntzak. Eusko Jaudaritzak eta HABEK sortua. 2001. Urtean euskara ikasteko multimedia autoikaskuntza-sistema jarraitu duten pertsonentzako laguntzak. Dokumentazioa aurkezteko epea: irailak 30.

**JARDUERAK**

Elektronikaldia 2001  
Donostiako Musika Elektronikoko 3. Jaialdia. Programa: Urriak DJ Sideral (Bartzelona, Gasteszenan. Urriak 6: HIPPALY (Sevilla) eta An Der Beat (Bartzelona), Kursaal jauregian. DJ Pascal (Londres) Gastezenan. Urriak 7: Mastretta (Madril) eta Burnt Friedman (Kolonía), Kursaal jauregian.

**IKASTAROAK**

Anorexia eta buliniaren zaintza eta prebentzioa

Anorexia eta bulimiar buruzko urrutiko ikastaroa. Gaisotasun hauen zaintza eta prebentzioa aztertuko dira Consulting Dovallek antolatuta. Izena emateko epea: urriak 15.

**LANA**

Hirigintzakoteknikaria  
Lehiaketa-oposizio bidezko hirigintzako teknikari postu bat Mutrikuko Udalerako. Hautagaiei, zuzenbideko diplomatura eta euskarako 4. Hizkuntza Eskakizuna eskatuko zaie. Izena emateko epea: urriak 1.

Administrari-kontulari plaza  
Olaberriako Udalerako. Goi-mailako Batxilergoko, bigarren mailako Lanbide Heziketako titulua edo baliokideren bat eta euskarako 3. Hizkuntza Eskakizuna behar dira. Izena emateko epea: urriak 1.

**Liburutegiko teknikaria**  
Hiru urterako kontratatzeko lehiaketa-oposizioa, Azpeitiko Udal-liburutegirako. Azpeitiko Udalak deituta. Diplomatura eta euskarako 3. Hizkuntza Eskakizuna behar dira. Izena emateko epea: urriak 4.

**Giza baliabideetako teknikaria**  
Giza baliabideetako teknikari plaza lortzeko lehiaketa-oposizioa, Tolosako Udalak deituta. Eskakizunak: Zuzenbideko, Politika Zientzietako edo Ekonomia edo Enpresa Zientzietako lizentziatu titulua eta 4. Hizkuntza Eskakizuna, Izena emateko epea: urriak 1.

**Kiroletako teknikari edo koordinatzailea**

Kiroletako teknikari edo koordinatzaile plaza bat betetzeko lehiaketa-oposizioa, Altsasuko Udalak deituta. Eskakizunak: Gorputz Heziketako edo Gorputz Heziketako espezialitateko Magisteritzako diplomatu titulua eta EGA. Izena emateko epea: urriak 11.

## San Migel auzoko

### IRAILAK 28, barixakua

22:00 Bertso jaialdia, Amuriza, Lopategi, Lizaso eta Egaña bertsolariekin.

Ondoren, erromeria Luhartz taldearekin.

### IRAILAK 29, zapatua

SAN MIGEL EGUNA

11:30 Meza nagusia.

Ondoren, Ziarda eta Mañukorta bertsolariak eta Jon Ostolaza eta Rakel Pujana trikitilariak.

13:00 Auzoko bikoteen arteko XVIII. Pilota Txapelketaren

17:00 Euskal Herriko Arraza Libreko Artzai Txakur Txapelketa.

22:30 Haritz Euskal Dantzari Taldearen erakustaldia.

Ondoren, erromeria Musutruk taldearekin.

01:00 Bolo txapeketa.

### IRAILAK 30, domekia

11:00 Meza.

Ondoren, Balzola anaiak trikitilariak.

17:00 Idi Demak, Soarte. Egurbide eta Examarekin.

22:00 Erromeria Balzola anaiekin.

00:00 Txekorraren zozketa.

## 28 BARIXAKUA

22:15 ZINEA

"Tomb Raider-Lara Croft"

## 29 ZAPATUA

16:00 HEGAZTIEI BURUZKO ERAKUSKETA

Kabiak eta hegaztien jateko erak ikusteko ekintzak

San Rokeko zelaietan

19:30 HEGAZTIEI BURUZKO DIAPOSITIBAK

Diapositiba emanaldia

Flizlariak: Aitor Leiza eta Asier Serrano ornitologoak

Kultur Etxean

19:30-22:15 ZINEA

"Tomb Raider-Lara Croft"

## 30 DOMEKIA

09:00 EHIZA XEHEKO

TXAPELKETA

Urnobitza mendian

Antolatzailea: La Union Ehiza eta Arrantza Elkartea

10:30 DEBARROKO

HAURRENTZAKO XXVIL

PERRETXIKO LEHIAKETA

Plaza Handian

Antolatzailea:

Karakate Mikologia Elkartea

16:30 UMEENTZAKO TAILERRAK

Gaia: "Zer iruditu zaizu Hegaztien Elluna?"

Kultur Etxean

18:00 HEGAZTIEN EGUNEKO

TXANGOA

Inguruko hegaztiak ikusteko tkangoa,

Aitor Leiza ornitologoarekin

19:30-22:15 ZINEA

"Tomb Raider-Lara Croft"

## 1 ASTELEHENA

22:15 ZINEA

"Tomb Raider-Lara Croft"

## 5 BARIXAKUA

22:15 ANTZERKIA

"Com ie6logos (gaztelera)

Taldea: Choubisnisis produkzioak

Herriko Antzokian

Zinea



## "Lara Croft-Tomb Raider"

Zuzendaria: Simon West.

Antzezleak: Angelina Jolie, Daniel Craig, Iain Glen.

Bideojoku arrakastatsu batetako promgonista izatetik zinemako izar izatera pasa da Lara Croft. Angelina Jolie aktorearen gorputz ederrak egin du hezur eta haragizko izar birtuala. Lara Croft familia oneko abenturazale ingelesa da. Bere abentura berrian hdbobietan ezkutaturik danden aintzinako objektu batzuk bilatu beharko ditu. Mundua salbatzeko 48 ordu besterik ez ditu izango. Islandiaraino eta Canboyaraino joan beharko du gaizkilearen aurka borrokatzeko.



**LEHIAKETAH****Elgoibarko VII. Komild Lehiaketa**

Kokoe Komiki Elkarteak Elgoibarko VII. Komiki Lehiaketa antolatu du. Gaia eta teknika libreak izango dira, baina pertsonaiek eta istorioek argitaratugabeak izan beharko dute. Orijinalak bidaltzeko helbidea: Kultura Zerbitzua, Nafarroa Plaza 3, 20870 Elgoibar. Lanak aurkezteko azken eguna urriaren 11 izango da edo egun hortara arteko mataseiloa duten sobreak, eguerdiko 14:00ak arte. Sariak honako hauek izango dira: 1. saria 80.000 pzta; 2. saria 60.000 pzta; 3. saria 40.000 pzta. Honetaz gain, 20.000 pezetako sari berezia izango da euskaraz hobekien errotulaturako komikiarentzat. Aurkeztutako lanekin eta saritutakoekin erakusketa bat egingo da urriaren 19tik 28ra bitartean Kultur Etxean.

**Perretxiko Lehiaketa**

Karakate Mikologia Elkarteak urtero antolatzen duen Debabarreneko haurrentzako XXVII. Perretxiko Lehiaketa domekan, hilaren 30ean, izango da Plaza Handian. Debarroko 15 urtez beherako perreodkozaleek hartu dezakete parte, bakarka nahiz taldeka. Izen ematea Karakate Mikologia Elkartean irailaren 29ko iluntzeko 20:00ak baino lehen egin behar da. Epaimahaia Aranzadi Zientzia Elkarteko kideek osatuko dute. Eguerdiko 13:00etan emango du bere erabakia epaimahaia, baina perretxikoak 14:00ak arte egongo dira ikusgai.

**DIANGOAK**

1950. urtean jaiotakoek Errioxara txangoa antolatu dute, San Millan de la Cogolla-ra, hain zuzen ere. Joan nahi dutenek urriaren 5a, barixakua, baino lehen eman beharko dute izena Siglo XXI inmobiliarian.

**DEIAIDIA****Saskibaloi taldea sortzeko**

Elgoibarko neska gazte batzuk saskibaloi talde bat sortu nahi dute. Taldea osatzeko 13 eta 16 urte bitarteko herritarrak behar dituzte. Saskibaloian jokatzeko gustuko duten guztiak taldea osatzera animatu nahi dituzte. Interesatuta daudenak datorren ostiralean, urriaren 5ean, 19:30ean Kiroldegi aurrean agertu daitezela zabal dezagun eskatu digute.

**INASTAROK****Antigimnasia ikastaroa**

Antigimnasia, erlajazio eta estresa kontrolatzen jakiteko ikastaroa urriaren lehen hasiko da. Klaseak astelehenerdik ostiralera eta 17:00etatik 19:00etara izango dira ohiko lekuan. Aurtengo berrikuntza burmuineko gimnasia deitutakoa izango da. Teknika errazen bidez ideiak argitzen eta energia berriak lortzen irakatsiko da. Teknika honekin edozein ikaslek, zahar nahiz gazte, burmuinak eskaintzen dizkion aukera guztiak aprobeztatzen ikasiko du.

**Margo artistikoa**

Egur tailerrak antolatuta, Margo artistiko ikastaroa hasiko da urriaren lehen. Klaseak astelehenerdik ostiralera izango dira 18:00etatik 20:00etara, Izen ematea: Ubitarte plaza z/g. Urriaren 22ra arte iraungo du ikastaroak.

**Fuipwi  
zine**

ARTELDEGIA

ELGOIBA erriko zokia

1

Barixakua: 22:15  
Zapatua: 19:30-22:30  
Domekia: 19:30-22:30  
Astelehena: 22:15

**"La pareja del año"**

Barixakua: 19:30-22:15  
Zapatua: 17:30-19:30-22:15  
Domekia: 17:00-19:30-22:15  
Astelehena: 19:30-22:15  
Martitzena: 19:30-22:15  
Eguaztena: 19:30-22:15

**"Los otros"**

Barixakua: 19:30-22:15  
Zapatua: 19:30-22:15  
Domekia: 19:30-22:15  
Astelehena: 19:30-22:15  
Martitzena: 19:30-22:15

**"OperaciOn Swordfish"**

Barixakua: 22:15  
Zapatua: 22:15  
Domekia: 19:30-22:15  
Astelehena: 22:15

**"Rugrats en Paris"**

Zapatua: 17:00-19:30  
Domekia: 17:00

**dejar**

Ostegona: 20:00 (Zine kluha)

**OSPALDZUNAK****1978an jaiotakoek bazkaria**

1978. urtean jaiotakoek Ikastolako 8. mailako ikasle ohien bazkaria antolatu dute. Urriaren 27an Harzubi jatetxean izango da zita arratsaldeko 15:00etan. Interesatuak urriaren 16a baino lehen 3.000 pezeta sartu beharko ditu honako kontu zenbakian: 30350007280070043231 (Euskadiko Kutxa).

**54571/4****ileapaindegia****Depilazio Elektrikoa**

San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

**14****Mandiola Egurrak S.L.**

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza, 3 7º 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



# A



ste honetako erretratua Isidro Viñarasek laga digu. 1964 urte inguruan ateratakoa da. Elgoibarren kanpotik etorritako jende asko dago eta koadrila horietako bat da bertan agertzen dena. San Bartolome jaietan Kultur Etxe aurreko plazan argazkilariek ipini ohi zuten panel baten aurrean atera zuen laukote honek erretratua. Esan

digutenez, giro ederrean igaro zuten jai eguna.


Hauek dira, ezkerretik eskumara, erretratuan agertzen direnak:

**Pascual Molina**, esku-pilotan jokatzeko trebea izandakoa. Villacarrillokoa da (Jaen); **Migel Ruiz** mantxatarra. Gaur egun PSO Eren tabernako arduraduna da; Jose **Maria Toledano** "Mexie", Guadalajarakoa; eta **Angel De Pablo** errioxarra. Gaur egun kanpoan bizi da.




## ESKERTZA

2001eko irailaren 19an, 78 urte zituela hil zen **FERNANDO MARCOS ZABALA**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## ESKERTZA

2001eko irailaren 21ean, 74 urte zituela hil zen **TXOMIN AROZENA ETXEZARRETA**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





## ETXEBIZITZEN ESKAINTZA BERRIA

- 3 logelako etxebizitzak eta 4 logelako duplexak.

Terraza eta loretegi handiekin. Hegoaldea begira, panoramika ederreko leku eguzkitsua.



Informa Zaituz  
Elgoibarko gure  
bulegoan

Bista Ederreko Etxebizitza-zonaldea

*Santa Klara*

(Mojen konbentuaren goiko aldean)



NEINOR  
E L GOIBAR

Santa Ana, 16 behea

**943 74 73 16**



NEINOR  
DONOSTIA

Tolosa hiribidea, 21-2.ezk.


**943 31 75 11**



K L U R A

# COMICÓLOGOS

UMOREZKO BAKARRIZKETAK



**Urriak 5,,ostirala  
gaueko 22:15ean  
HERRIKO ANTZOKIAN**



KULTURA SAIA



FORU AIDUNDIA

**CHOU  
BISNIS**

TALDEAREN PRODUKZIOA

Barrez lehertuko zara